1. **Non jaiotzen zen jendea?** Bakoitza bere etxean jaiotzen zen.
2. **Zeinek laguntzen zuen emakumea erditzerakoan?** Medikua etorriko zen eta beste auzoko emakumeren bat emagin moduan laguntzeko edo. Eta etxean jaiotzen ziren haurrak, garai hartan eta gero ere bai.
3. **Nola egoten zen emakumea erditu eta gero?** Ohean sartuak ez dakit zenbat denbora.
4. **Zer jaten zuen emakumeak eta gizonak?** Oilo-salda emakumeak eta gizonak oiloa.
5. **Bataioa noiz egiten zen?** Ahal bazen, hurrengo egunean. Eta jaio eta hurrengo egunean ez bada, hurrengoan bai.
6. **Zeren beldur ziren?** Umea hiltzeko beldurra zegoen.
7. **Zer egiten zen orduan?** Bataiatu egiten zen. Eguraldi txarra egon, ona egon, bataiatu egin behar zen. Orduan apaizak ez zuen uzten bataiatu gabe.
8. **Ama joaten al zen bataiora?** Ez, ez zen joaten. Aita eta aita-ama pontekoak joaten ziren.
9. **Amak zer egiten zuen sendatzen zenean?** Elizara sartzen zen eta ordura arte amak ezin zuen etxetik irten.
10. **Amak irten behar bazuen nola ateratzen zen etxetik?** Teila buruan ipinita.
11. **Umea pixka bat bizkortzean zer egiten zuten emakumeek?** Inguruko emakume guztiak biltzen ziren eta orduan jartzen zuten askaria (merienda).
12. **Nola deitzen zioten askari berezi honi?** “Martopilak”, “Atsolorra”.
13. **Noiz egiten zen jaioberriarekin askari berezi hau?** Haurra jaio eta handik hamabost egunera edo horrela. Auzoko emakume denak bildu eta askaria izaten zen.
14. **Denek eramaten al zuten zerbati askarira?** Bai
15. **Zeintzuk etortzen ziren meriendatzera?** Auzoko andre/atso guztiak etortzen ziren jaioberriaren etxera. Bisita egiten zuten, ahal zutena ematen zuten, beraien gauzak egiten zituzten eta… “Atsolorra”.
16. **Zein opari egiten zizkioten jaioberriari?** Erropatxoa, dirua… denek ekartzen zuten zerbait.
17. **Gizonak joaten al ziren?** Ez. Emakumeak bakarrik.
18. **Zer egiten zuten emakumeek askari horretan?** Irrintzika eta ibiltzen ziren.

# 9. Hileta-errituak II. Hilarriak eta argizaiolak (Ikus-entzunezkoa, 5 min.)

San Telmo Museoko erakusketa iraunkorrean, behe solairuan, Izpiritualtasun zeinuak atalean, ikusgai dagoen ikus-entzunezkoa aztertu dezakezue. Ikusi bideoa eta galderak erantzun: https://youtu.be/cX56ocl2B9s

## Galdera proposamena:

1. **Noizkoak dira Euskal Herrian topa ditzakegun hileta-monumentu zaharrenak?** Megalitikoak
2. **Zein da ezagunena?** Trikuharria
3. **Hilarriek zer seinalatzen dute?** Ehorzketa lekua
4. **Zein forma dute hilarriek?** Disko forma
5. **Eta oinarria?** Trapezoide forma
6. **Zerez eginak dira hilarriak?** Harriz
7. **Zein ikur dituzte hilarri zaharrenek?** Eguzki formako ikurrak
8. **Ondoren zein sinbolo gehitu ziren?** Kristauak
9. **Ikur horiek zer adierazten dute?** Hildakoaren ogibidea
10. **Erdi Aroan, Kristautasunaren eraginez, hildakoak santuen edo leku sakratuen ondoan lurperatzen zituzten? Zergatik?** Hildakoaren arima zerura iristen laguntzeko
11. **Non kokatzen ziren hilarriak?** Elizatik kanpo
12. **Eta zeintzuk ehorzten ziren elizaren barruan?** Gizartearen hierarkian gorago zeuden pertsonak: nobleak, erregeak, e.a.
13. **Erdi Aro amaieran eliza barruan zorua zatitu zen eta familia bakoitzari zati bat eman zitzaion. Zertarako?** Familia bakoitzak ehorzleku bat izan zezan.
14. **Zer egiten zer ehozleku horretan?** Erritu ezberdinak
15. **Zein eskaintza mota egiten ziren?** Haragi eskaintzak, diru eta ogi eta argi eskaintzak, batez ere.
16. **Nola egiten ziren argi eskaintzak?** Argizaiolaren bidez.
17. **Zer da argizaiola?** Argizariz inguratutako ohola.
18. **Zer da jarlekua?** Etxekoandrea errezatzeko hilobi gainean jartzen zuen lekua.
19. **Zeini egiten zizkion opariak etxekoandreak?** Etxeko eta auzoko hildakoei. Honela elkartasuna azaltzen zuen.
20. **Noiz pizten dute argizaiola?** Igandero

21. **Zergatik?** Hildakoentzako oroimenez delako. Argia hildakoarentzat da.
22. **Non daude gizonak?** Bankuetan. Eta emakumeak? Hilobiaren gainean eserita argizaiolarekin.
23. **Nola sartzen ziren elizan emakumeak norbait hiltzean?** Beltzez jantzita eta mantalina luzea zutela belaunetaraino.
24. **Noiz debekatu zuten elizan ehorzketa fisikoak egitera?** XIX. mende hasieran
25. **Non hilobiratzen zituzten orduan?** Elizaren kanpoaldean egindako hilerrietan
26. **Nolakoa izan da Gipuzkoan argizaiolaren oholaren forma?** Gizakiaren itxurakoa
27. **Zer irudikatzen du oholak?** Persona
28. **Zer irudikatzen oholak inguratzen duen argizariak?** Hildakoaren arima bizia
29. **Zer da argizaioletan zein hilarrietan topa dezakegun ohiko ikurra?** Lauburu gurutzea edo eguzkiaren irudikapena
30. **Argia eta eguzkia zeren sinbolo izan dira beti?** Jainkotasunaren, biziaren eta betikotasunaren sinbolo izan dira beti.

# 10. Erakusketako guneen eta edukien zehaztapena (planoa)

BEHE SOLAIRUA




**EDUKIAK, OBJEKTUAK ETA GARAIA**

1. **Museoa bizirik XVI. mendetik**
2. **Museoa bizirik XVI. mendetik, fundatzaileen hilobia.**
3. **Oroitarriak, XVI-XVII-XVIII.**
4. **Euskal hileta-erritualak, argizaiolak, XIII-XIX.**
5. **Euskal hileta-erritualak, hilarriak, XIII-XIX.**

# 1. SOLAIRUA




**EDUKIAK, OBJEKTUAK ETA GARAIA**

6. **Dolua, emakumearen alargun soinekoa, XX.**
7. **Dolua, hil-oihala, XIX.**
8. **Familia landa-eremuan, oroitargazkiak, XIX-XX.**

# 11. STM bizirik XVI. mendetik

## Postalak



### Alonso de Idiakezen hilobia

XX. mendea
Argazkia
San Telmo Museoa

### Sepultura de Alonso de Idiakez

Siglo XX
Fotografía
Museo San Telmo



### Gracia de Olazabalen hilobia

XX. mendea
Argazkia
San Telmo Museoa

### Sepultura de Gracia de Olazabal

Siglo XX
Fotografía
Museo San Telmo



## San Telmo Museoko Sarrera zaharra

XX. mendea
Argazkia
San Telmo Museoa

## Antigua entrada al Museo San Telmo

Siglo XX
Fotografía
Museo San Telmo



## San Telmo

XVI. mendea
Olio-taula
San Telmo Museoa

## San Telmo

Siglo XVI
Óleo tabla
Museo San Telmo



## San Telmoko klaustroa

XIX. mendea
Papera
San Telmo Museoa

## Claustro del Museo San Telmo

Siglo XIX
Papel
Museo San Telmo



## San Telmo Museoko eliza

XIX. mendea
Papera
San Telmo Museoa

## Iglesia del Museo San Telmo

Siglo XIX
Papel
Museo San Telmo



## San Telmoko klaustroa

XIX. mendea
Argazkia
San Telmo Museoa

## Claustro del Museo San Telmo

Siglo XIX
Fotografía
Museo San Telmo



## San Telmo Museoa

XXI. mendea
Argazkia
San Telmo Museoa

## Museo san Telmo

Siglo XXI
Fotografía
Museo San Telmo

# 12. Oroitzeko harria.

Hauexek dira bisitan zehar lantzen ditugun oroitarriak

### 1. Joan Domingo de Oiza (c.a. 1680-1750)

Joan Domingo de Oiza prokuradorea izan zen, herri interesen defentsarekin lotutako ofizioa. Bere garaiko lege batzuen aurka agertu zenez, 80 egunez kartzelara eraman zuten, herriaren matxinada eragitea leporatu ziotelako. Sei urte geroago, hiriko epaimahai nagusi aukeratu zuten.

### 2. Joseph de Carrion (Donostia, c.a. 1690-1740)

Eskribaua izan zen, ofiziotzat dokumentuak kopiatu edo idaztea zuen gizona. 1724an okupatu zuen ofizio hau, aitak uko egin ondoren.

### 3. Bernardo de Aguirre (Donostia, c.a. 1600-1674)

Kapitaina izan zen, merkataria, eta Ternuan (Kanada) arrantzan lagundu zuen. Europako negozio gizonekin harremana izan zuen, eta hainbat etxe eta baserri zituen. Donostiako alkatea eta Gipuzkoako Ahaldun Nagusia izan zen.

### 4. Bernarda de Goicoechea (XVIII. mendea)

Hari buruz bakarrik dakigu Hondarribiko bere ahizpa bizilagunak iraintzeagatik zigortu zutela. Haren oroitarrian burezur bat ikusten dugu, heriotza irudikatzen duena. XVII. mendean zehar oso ohikoa izan zen ikurra.

### 5. Joan de ARBELAIZ (Donostia, 1560-1629)

Errege armaden kutxazaina, alkatea eta Inkisizioaren idazkaria izan zen.

### 6. Joan Perez de Aguirre (Donostia, ca. 1595-1633)

Arrantzan, merkataritzan eta politikan aritu zen.

### 7. Juan Antonio de Zabaleta (XVIII. mendea)

Hainbat itsasontziren kapitaina izan zen eta nabigatzeko trebezia erakutsi zuen.

1



## OROITARRIA

XVII. mendea
Harria
San Telmo Museoa

## LÁPIDA

Siglo XVII
Piedra
Museo San Telmo

2



## OROITARRIA

XVII. mendea
Harria
San Telmo Museoa

## LÁPIDA

Siglo XVII
Piedra
Museo San Telmo

3




## OROITARRIA

XVII. mendea
Harria
San Telmo Museoa

## LÁPIDA

Siglo XVII
Piedra
Museo San Telmo

4




## OROITARRIA

XVIII. mendea
Harria
San Telmo Museoa

## LÁPIDA

Siglo XVIII
Piedra
Museo San Telmo

5



## OROITARRIA

XVI. mendea
Harria
San Telmo Museoa

## LÁPIDA

Siglo XVI
Piedra
Museo San Telmo

6



## OROITARRIA

XVI. mendea
Harria
San Telmo Museoa

## LÁPIDA

Siglo XVI
Piedra
Museo San Telmo

7




## OROITARRIA

XVIII. mendea
Harria
San Telmo Museoa

## LÁPIDA

Siglo XVIII
Piedra
Museo San Telmo

# 13. Argi eta ohol

Hauxek dira bisitan lantzen ditugun argizaiolen argazkiak



**ARGIZAIOLA**

Zura eta argizaria
San Telmo Museoa

**ARGIZAIOLA**

Madera y cera
Museo San Telmo



**ARGIZAIOLA**

Zura eta argizaria
San Telmo Museoa

**ARGIZAIOLA**

Madera y cera
Museo San Telmo



**ARGIZAIOLA**

Zura eta argizaria
San Telmo Museoa

**ARGIZAIOLA**

Madera y cera
Museo San Telmo



**ARGIZAIOLA**

Zura eta argizaria
San Telmo Museoa

**ARGIZAIOLA**

Madera y cera
Museo San Telmo



**ARGIZAIOLA**

Zura eta argizaria
San Telmo Museoa

**ARGIZAIOLA**

Madera y cera
Museo San Telmo



**ARGIZAIOLA**

Zura eta argizaria
San Telmo Museoa

**ARGIZAIOLA**

Madera y cera
Museo San Telmo



## ARGIZAIOLA

Zura eta argizaria
San Telmo Museoa

## ARGIZAIOLA

Madera y cera
Museo San Telmo

# 14. Hil eta harri

Hauxek dira ibilbidean lantzen ditugun hilarrien argazkiak



**HILARRIA**

Harria
San Telmo Museoa

**ESTELA**

Piedra
Museo San Telmo



**HILARRIA**

XIV-XVI.mendea
Harria
San Telmo Museoa

**ESTELA**

Siglo XIV-XVI
Piedra
Museo San Telmo



## HILARRIA

Harria
San Telmo Museoa

## ESTELA

Piedra
Museo San Telmo



## HILARRIA

XIV-XVI.mendea
Harria
San Telmo Museoa

## ESTELA

Siglo XIV-XVI
Piedra
Museo San Telmo



## HILARRIA

XVI.mendea
Harria
Inskripzioa "OGER DE URSUA"
San Telmo Museoa

## ESTELA

Siglo XVI.
Piedra
Inscripción "OGER DE URSUA"
Museo San Telmo



## HILARRIA

Harria
San Telmo Museoa

## ESTELA

Piedra
Museo San Telmo



## HILARRIA

XVII-XVIII.mendea
Harria
Inskripzioa "IVAN LOPE"
San Telmo Museoa

## ESTELA

Siglo XVII-XVIII
Piedra
Inscripción "IVAN LOPE"
Museo San Telmo



## HILARRIA

XV.mendea
Harria
Inskripzioa "I.H.S."
San Telmo Museoa

## ESTELA

Siglo XV
Piedra
Inscripción "I.H.S."
Museo San Telmo



## HILARRIA

XII-XIV.mendea
Harria
San Telmo Museoa

## ESTELA

Siglo XII-XIV
Piedra
Museo San Telmo



## HILARRIA

XIV-XVI.mendea
Harria
San Telmo Museoa

## ESTELA

Siglo XIV-XVI
Piedra
Museo San Telmo



## HILARRIA

II-I. mendea K.a.
Harria
San Telmo Museoa

## ESTELA

Siglo II-I. a. C.
Piedra
Museo San Telmo



## HILARRIA

II-III. mendea
Harria
Inskripzioa
"D(iis) M(anibus) FI(lio) SVI / P(ecunia) S(ua)
P(ia) M(ater) A(annorum) VIIII F(ecit)".
"D(iis) M(anibus) FI(lio) SVI / P(ecuria) S(ua)
P(lus) M(inus) A(annorum) VIII LEO".
San Telmo Museoa

## ESTELA

Siglo II-III
Piedra
Inscripción
"D(iis) M(anibus) FI(lio) SVI / P(ecunia) S(ua)
P(ia) M(ater) A(annorum) VIIII F(ecit)".
"D(iis) M(anibus) FI(lio) SVI / P(ecuria) S(ua)
P(lus) M(inus) A(annorum) VIII LEO".
Museo San Telmo



## HILARRIA

Erromatar aurrekoa
Harria
San Telmo Museoa

## ESTELA

Prerromana
Piedra
Museo San Telmo

# 15. Hamarrena eta salbazioa



**HAMARRENETARAKO KUTXA**

Haritz-egurra
San Telmo Museoa

**ARCÓN DE DIEZMOS**

Madera de roble
Museo San Telmo

# 16. Dena beltz



## ANDRE-JANTZIA

XIX. mendea
Oihala
San Telmo Museoa

## VESTIDO

Siglo XIX
Tela
Museo San Telmo

# 17. Hil eta oihal



**HIL-OIHALA**

Lihoa
San Telmo Museoa

**SUDARIO**

Lino
Museo San Telmo

# 18. Euskal Erritualen azterketa: puzzlearen muntaia edo antzespena.

## 1/ Trikuharria

Harlauzaz eginiko ehorzketak ziren. Barruan familiako kide ezberdinak ehorzten ziren, batzuk bestearen jarraian, Gorputzak albotik etzanda zeudela jartzen ziren hankak jasota eta tolestuta zituztela. Barruan hornidurak, puntzoiak, keramikazko ontziak e.a. jartzen zituzten.

## 1/ Dolmen

Eran los enterramientos colectivos en cubiertas por losas de piedra. Se enterraban a varias personas, unos seguidas de otras. Los cuerpos eran colocados de lateral con las piernas flexionadas y recogidas. Solían añadir adornos, puntas de flecha, vasijas de cerámica o punzones.

## 4/ Elizabidea

Etxeko norbait hiltzean hilotza elizara eramaten zen baserria eta eliza lotzen zituen bide zehatz batetik. Baserri bakoitzak berea zuen.

## 4/ Camino de la iglesia

Al morir alguien había un camino especifíco para llevar el cadáver del caserío a la iglesia. Cada caserío tenía el suyo propio.

## 2/ Etxea eta sua

Sua da etxea babesteko elementua eta hildakoen munduarekin lotura. Horregatik, etxeko leku garrantzitsuena da sukaldea edo suaren aldea.

## 2/ La casa y el fuego

El fuego es el elemeno protector y representa la unión con el mundo de los difuntos. Por eso, el hogar o "sukalde" (el lado del fuego) es el lugar más importante de la casa.

## 3/ Ehorzketak:

Etxean egiten ziren lehen ehorzketak XIII. menderaino. Ondoren, elizetan egiten hasi ziren.

## 3/ Enterramientos

Primeros enterramientos en la casa hasta el siglo XIII, que se trasladan al interior de la iglesia.

## 5/ Argizaiola:

Etxeko sua (sukaldea) elizako jarlekura pasa ahal izateko Argizaiola sortu zen. Honek eramango du etxeko sua elizara.

## 5/ Argizaiola

Ante la necesidad de trasladar el fuego del hogar o sepultura al jarleku de la iglesia, surge la Argizaiola como elemento portador del fuego simbólico del hogar a la iglesia.

## 6/ Jarlekua

XIII. mendetik aurrera, ehorzketak elizaren barnealdean egiterakoan, baserri bakoitzak bere hilobia zuen eta bere hildakoen alde otoitz egiteko lekua.

## 6/ Jarleku

Cuando los enterramientos se realizaban en el interior de la iglesia, a partir del siglo XIII, cada caserio tenía su propia tumba y un lugar para rezar a sus difuntos.

## 7/ Hilerria

Elizaren kanpoaldera pasa ziren ehorzketak XVIII. mendean. Baserri bakoitzak bere hilobia izan zuen.

## 7/ Cementerio

Los enterramientos pasaron al exterior de la iglesia en el siglo XVIII. Cada caserío tenía su propia tumba.











# 19. Hilarriak egitea: asmatu prozesua. Kromoak eta posterra.

















10

2





10

2





7

9




5
6
9
10
11
12

# 20. Hilarria-pizza: sortu zure hilarria.



Hilarria marrazteko erretikula.

# 21. Argizaiola: sortu zurea

Ariketa honen bitartez ikasleek beraien argizaiola sortu ahal izango dute. Sormen lan hau bidimentsionala zein hirudimentsionala izan daiteke. Hortaz, lana marrazkia, collage, margoak erabiliz egin ahal izango dute edo plastilina zein buztina erabiliz, adibidez. Taldearen arduradunak aukera dezake zein den sormen lana bideratzeko aukerarik egokiena.

Horretarako baliabide ezberdinak izango ditugu:

- Erretikula bat.

- Museoko bildumetatik aukeratutako 6 argazki.

- Museotako hilarrien 6 marrazki.

## ARGAZKIAK:













## MARRAZKIAK:















Argizaiola marrazteko erretikula.

# 22. Ba al zenekien? jokoa

Taldea bi azpitaldetan banatu beharko dugu. Talde bakoitzak galdera bat egingo dio besteari. Asmatzen badu, hilarriaren kuadrantean jarriko du galderari dagokion zenbakia eta asmatzen ez badu, ez. Hilarriaren lau koadranteak lau zenbakiekin betezen dituen lehenak irabaziko du.

Materiala: galderak, lau zenbakien txartelak (1,2,3,4) eta hilarri baten silueta lau koadranteekin.

## GALDERAK:

Negritan daude erantzun zuzenak. Batzuetan, erantzun bat baino gehiago posible da.

## 1/ Harkutxa / Dolmenak

Lurperatze kolektiboak egiten ziren bertan

- **Neolitoa (K.a. 3. milurtekoa)**
- Paleolitoa (K.a. 3.000.000- 10.000)
- Brontze Aroa (K.a. 2500-1.000)

Gorputzak jartzen zituzten

- **Elkarren segidan**
- Bata bestearen gainean
- Bata bestearengandik bereiztuta

Hildakoarekin batera lurperatzen zituzten

- Animaliak
- Jakiak
- **Apaingarriak, gezi-muturrak, zeramikazko ontziak, puntzoiak, e.a.**

## 2/ Argizaiola

Zertarako erabiltzen ziren?

- Baserria argiztatzeko
- **Ehorzketak baserritik elizetara pasatzerakoan elizan, hilobiaren gainean, jartzen zen ohola zen hildakoen alde otoitz egiteko.**
- Sukaldatzeko

## 2/ Argizaiola

Zeinek erabiltzen zuen?

- Gizonezkoak
- **Emakumearen ardura zen familiako hildakoen alde otoitz egitea. Horretarako, argizaria piztu eta baserri bakoitzak zuen jarlekuaren gainean, ogien eskaintza egiten zuen zamaua izeneko zapi baten gainean.**
- Haurrak

## 3/ Hilarriak

Hildakoen gorputzak lurperatzean hildakoaren omenez jartzen ziren:

- Ezkerrean
- Eskubian
- **Aurrean**

Forma anitzak izan ditzakete:

- **Disko forma**
- **Lauki luzea**
- Hiruki forma

## 4/ Errausketa-urnak

Hilotzak erretzen hasi ziren lehenak izan ziren

- **Erromatarrak**
- Greziarrak
- Egipziarrak

Egun, errautsak gordetzen dira:

- **Etxean**
- **Familiaren hobian**
- **Hilerrietako hortako prestatutako lekuetan**

## 5/ Hilerria

Euskal Herrian ehorzten ziren hildakoak

- **Baserriko lur sailan**
- Baratzan
- Baserriko ukuiluan

Bataiatu gabeko haurrak ehorzten ziren

- **Teilen artean, baserriko teilatuaren babespean**
- Lurrean, zuhaitzen enborren artean
- Lurrean, harrien artean

Elizan familia bakoitzak zuen bere

- **Hilobia**
- Jarlekua
- Argizaiola

## 6/ Hil-beila

Hil ondoren,

- **Hildakoaren etxean egiten zen**
- Elizan egiten zen
- Herriko frontoian egiten zen

Nortzuk parte hartzen zuten?

- Laneko lagunak
- **Familiako kideak, lagunak eta auzokideak**
- Etxeko animaliak

Zer egiten zuten?

- Jan eta edan
- **Familiarekin egon eta errezatu**
- Dantza

## 7/ Hileta-segizioa

Zer da?

- **Behin betiko hildakoa agurtu aurreko erritua**
- Hildakoari eskainitako oroigarria
- Hildakoari eskainitako abestia

Zer egiten da?

- Hildakoarekin batera egon hil arte.
- **Hildakoarekin batera etxetik, elizatik edo beilatokitik hilerrira edo errausketa-lekura joatea denak elkarrekin edo talde txikian.**
- Hildakoaren familiarekin abestu.

# 8/ Hiletak

Zertarako ziren?

- **Hildakoaren arima salbatzea zen helburu, hau da, erlijio kristauaren arabera hilezkorra den gizakiaren atal bakarra**
- Familako kideak jasotzen dute lagunen eta ingurukoen elkartasuna
- Hildakoaren omenez egindako otoitzak

# 9/ Kanpaiak

Zertarako erabiltzen ziren?

- **Eguneroko bizitzan abisuak jendeari emateko**
- **Herri bateko heriotzaren berri emateko**
- Herriko kontzertuetan

Nola jotzen ziren?

- Beti berdin jotzen ziren.
- **Ez ziren berdin jotzen. Hildakoa haurra edo heldua, gizona edo emakumea baziren, ezberdin jotzen ziren.**
- Urtaroaren arabera ezberdin jotzen ziren.

# 10/ Eresiak

- Hileta-jantziak dira.
- **Emakumeak abestutako hileta-abesti herritarrak dira**
- Hiletetan erabiltzen diren eserleku bereziak dira

# 11/ Dolu-jantziak

Doluaren adierazle gure kulturan da

- **Beltza**
- Gorria
- Txuria

Zeintzuk janzten ziren beltzez?

- **Emakumeak**
- Haurrak
- Gizonezkoak *

* Gizonak bakarrik hildakoaren gorputza etxetik kanposantura zeramatela janzten ziren beltzez

Zenbat denbora egoten ziren emakumeak beltzez jantzita?

- Hilabete bat
- **Bi urte**
- Aste bat

Dolu zorrotzaren ondoren, dolu erdia edo arindua hasten zuten. Nola janzten ziren orduan?

- **Grisa, zuria edo morea erabil zezaketen.**
- Horiz
- Gorriz

## 12/ Dolu-bitxiak

XIX. mendean egiten ziren bitxiak hildakoaren

- Hezurrekin
- Arroparekin
- **Ilearekin**

Bitxiak ezberdinak ziren:

- **Aberatsa edo behartsuentzat baziren: atxabitxiarekin egiten ziren -garestia- edo beira eta ebonitarekin -merkeagoak-**
- Kalean edo etxean erabiltzeko baziren
- Helduentzako edo haurrentzako baziren



1

2

3

4

# 23. Bizi-testamentua. Karta-jokoa.

Ikasleekin kontzeptu honen inguruan hausnartzeko aukera emango dizuegu.

Honetarako, esteka honetan topa dezakezuen karta-jokoa erabiliko dugu:

https://www.vivirconvozpropia.com/producto/en-el-final-de-mi-vidaque-es-importante-para-mi-juego-de-33-cartas/

33 kartez osatutako Karta-joko honen bitartez hausnarketa hau egin ahal izango dugu ikasleekin:

- Zer da nire bizitzaren bukaeran egin nahi dudana?
- Zer da niretzat garrantzitsua?

## “Neure ahotsarekin bizi” Kartak nola erabili

Karta hauek gure bizitzaren amaieran jaso nahi genituzkeen zaintza ezberdinen inguruan hausnarketa sustatzeko dira.

Era ezberdinetan erabil daitezke:

### 1. Taldean

Karta-sortan dauden esaldiak irakurri eta gero, 10 karta garrantzitsuenak aukeratzen dira taldekide guztien artean adostuz. Honetarako, garrantzitsuenak eta garrantzi gutxien duten karten artean eztabaidatu beharko dute.

### 2. Bikoteka (bi karta-sorta)

- Pertsona batek zainketen eta tratamenduen plana eta “Aldez aurreko borondateen dokumentua” garatuko du.

- Beste pertsonak, *Ordezkari* bezala aukeratuko dugu, eta beste horren ordez plana eta dokumentua egingo du. Ordezkari bat baino gehiago egon daitezke.

Pertsona bakoitzak, berezirik, karta-sortatik kartak aukeratzen ditu.

Plana egiten duen pertsonak kartak hiru taldeetan banatzen ditu:

1.- Niretzat oso garrantzitsua

2.- Niretzat pixka bat garrantzitsua

3.- Niretzat garrantzi gutxikoa edo bat ere ez

Pertsona *Ordezkariak*, ordezkatuko duen pertsonan pentsatuz, pertsona horrek aukeratuko zituzkeen kartak hautatzen ditu aipatutako hiru irizpideen arabera:

1.- Niretzat oso garrantzitsua

2.- Niretzat pixka bat garrantzitsua

3.- Niretzat garrantzi gutxikoa edo bat ere ez

Ondoren, aukeratutako kartak zertan diren ezberdinak aztertzen dira, hau da, pertsonak aukeratutakoak eta honen ordezkariak aukeratutakoak. Honetarako bi irizpide izango ditugu kontuan:

1.- Niretzat oso garrantzitsua

3.- Niretzat garrantzi gutxikoa edo bat ere ez

Honen arabera, bakoitzaren lehentasunen inguruan azterketa egin dezakegu eta gure artean dauden berdintasunak eta ezberdinasunak agerian jarri.

Azkenik, bi partehartzaileen artean 10 esaldi garrantzitsuenak aukeratu behar dituzte aukeratu duten pertsonarentzat plana egiteko.

### 3. Barkarka (Bakar-jokoa)

Gutunak hiru taldeen arabera ordenatu irizpide hauen arabera:

1. Niretzat oso garrantzitsua
2. Niretzat pixka bat garrantzitsua
3. Niretzat garrantzi gutxikoa edo bat ere ez

Lehenengo taldean, aukeratu norberarentzat garrantzitsuen diren 10. Gutxiago badaude osatu 10 arte bigarren taldekoekin. Aukeratutako 10 horiek dira niretzako garrantzitsuenak.

Taldekideei azaldu beharko zaie zergatik aukeratu ditudan garrantxitsuen bezala hamar horiek. Eta berdina egin beharko dut garrantzi gutxien dutenak bezala aukeratu ditudanekin.

## Karta-sortako esaldiak

1.Ni entzungo nauen norbait edukitzea

2.Hitzegin eta ulertzen nautela sentitu

3.Bizitza eta heriotzaren zentzuaz hitzegin

4.Arduratzen nauenaz hitzegin ahal izan

5.Konszientea izan bukaeraraino

6.Bakarrik ez hil

7.Nire etxean hil

8.Maite ditudan pertsonak nigandik gertu izan

9.Nire familiak nire lehentasunak ezagutu ditzala desadostasunak edo gatazkak ekiditeko

10.Nire familia nire heriotzerako prestatua egotea

11.Nire familiarentzat karga bat ez izan

12.Besteak lagundu ahal izan

13.Gai ekonomikoak konponduta izan

14.Otoitz egin

15.Erjilioaren laguntza izan

16.Ulertzen nauten profesionalengan konfidantza izan

17.Sentitu dezakedana ezagutu

18.Minik ez izan

19.Antsiedaderik ez izan

20.Airerik falta ez dakidala

21.Garbi mantendu nazatela, itsura onarekin

22.Nire familiako kideak eta lagunak antzeman ditzakedala

23.Jan eta janaz gozatu ahal dezadala

24.Nire bizitza beharrik gabe luzatu ez dadila

25.Nire bizitza osatua dagoela sentitu

26.Nire bizitzako pertsona garrantzitsuei agur esateko aukera izan dezadala

27.Familiako kide edo lagunekin ditudan gai pendienteak konpon ditzadala

28.Bukaerararte norbaitekin batera egon nadila

29.Organu zein ehunen donantea izan nadila

30.Nire familiak sufrimendurik izan ez dezala

31.Hospital batean hiltzea

32.Nire nahiak eta lehentasunak errespetatu daitezela

33.Karta librea – Komodin

## "Aldez aurreko borondateen dokumentua".

Karta-jokoaren ondoren, ikasleei, bere kabuz, "Aldez aurreko borondateen dokumentua" idatz dezatela eska diezaiekegu.

Jarraian txertatu dugu Osakidetzak duen dokumentua, nahi izanez gero, eredu bezala erabil ahal dezazuen. Dena den, ikasleei beraiek bere kabuz egin dezatela eska diezaiekegu. Izan ere, ez dago eredu finkorik. Norberak nahi duen itsura eman diezaioke.

## ALDEZ AURREKO BORONDATEEN DOKUMENTUA

Nik, *(izen-abizenak)* ________________________________________________________________ , adinekoa, NAN (edo pasaportea edo AIZ) zenbakiarekin __________________eta telefonoaren zenbakia _______________ , helbidearekin *(helbidea)* ______________________________________________________________________ , posta kodea _______________ herria-udalerria ______________________________________________________ ,

**erabakia libreki hartzeko gai naizelarik, eta gogoeta egiteko behar nuen informazioa jaso ondoren, honako hau adierazi nahi dut: dokumentu honetan aurrerago zehazten ditudan tratamenduak eta zainketak onartu eta/edo errefusatzen ditut, eta horrela kontuan hartzea nahi dut, nire egoera fisikoa eta/edo psikikoaren ondorioz, neure borondatea adierazterik ez daukadan egunean.**

Nire tratamenduaren ardura duen medikuari eskatzen diot nire heriotza luzatzeko besterik ez diren tratamenduak kentzeko, edota horrelakorik ez hasteko, baldin eta sendaezineko edo atzeraezineko egoeran banago, hau da, sendatzeko itxaropen arrazoizkorik ez badago, hala nola:

a) Egoera terminalean banago.
b) Korderik gabeko egoera iraunkorrean egonez gero.
c) Gutxieneko kordea badut, non ez bainaiz gai, inondik ere, erabakiak hartzeko edo zer nahi dudan adierazteko.
d) Besterik: ______________________________________________________________________
______________________________________________________________________________ .

Horrez gain, nire tratamendua ni erosoago sentitzeko eta mina edo oinazea arintzeko bakarrik izatea nahi dut, tratamendua ez egitetik edo kentzetik etor daitezkeenak ere barne.
Halaber, jakinik ere ez nagoela behartuta errefusatzen ditudan tratamendu guztiak zehaztera, tratamendu hauei uko egiten diedala adierazi nahi dut:

– Ez dut bihotz-biriketako bizkortzerik nahi.
– Ez dut aireztapen mekanikorik nahi.
– Ez dut inongo dialisirik nahi.
– Ez dut elikadura edo hidratazio artifizialik nahi.
– Ez dut antibiotikorik nahi.
– Ez dut ______________________________________________________________________________ .

Gainera, heriotza duina izateko behar dudan asistentzia ere nahi dut, mina ahalik gehiena arintzeko modukoa, bai eta heriotza aurreratuko badit ere.

**Jarraibide hauek ere kontuan hartzea nahi dut:**

– Organoak eta ehunak ematea.
– Nire bizitzako azken egunetan non zaintzea nahi dudan (etxean, ospitalean...).
**– Besterik: ___________________________________________________________**
___________________________________________________________________ .

Izena eta abizenak *(emailea)*_____________________________________________________

NAN (edo pasaportea edo AIZ) zk. ______________________

Data eta lekua ______________________________________________________________

SINADURA *(emailea)*:

## ORDEZKARIA IZENDATZEA

*(Ordezkari bat baino gehiago izenda daitezke.)*

Nik, *(emailaren izen-abizenak)* _____________________________________________________

______________ , adinekoa, NAN (edo pasaportea edo AIZ) zenbakiarekin ___________________________ ,

helbidearekin *(helbidea)* ___________________________________________________ posta

kodea _______________ herria-udalerria ___________________________________________ .

**jarduteko gaitasun osoa dudalarik, izendatzen dut nire ordezkari** *(ordezkariaren izena eta abizenak)*

**_________________________________________________________________________ ,**

**NAN** (edo pasaportea edo AIZ) **zenbakiarekin** ___________________ **telefono-zk. __________________ ,**

**duena eta betetzen dituena Eusko Legebiltzarraren osasun-alorreko aldez aurreko borondateei buruzko 7/2002 Legean, abenduaren 12koan, 2.3 (a) artikuluan zehaztutako baldintzak, eta, behar izanez gero, berak hitz egingo du talde sanitarioarekin, erabakiak nire izenean har ditzan eta dokumentu honetan adierazi dudan borondatea bete dadin.**

**Dokumentu hau interpretatzean zalantzarik izanez gero, nire ordezkariaren iritzia kontuan hartzea nahi dut,eta, hain zuzen ere, berari ematen diot baimena,dokumentu honetan jasota ez dauden tratamenduei buruzko erabakiak hartzeko, baldin eta neure Kabul erabakitzerik ez badaukat, eta, betiere,dokumentu honetan aldez aurretik jasotako borondateekin kontraesanean ez badaude.**

Data eta lekua ______________________________________________________________________

SINADURA *(emailea)*:

## Ordezkariak Onartzea

Onartzen dut izendapena eta ados nago *(emailaren izen-abizenak)* ___________________________ ________________________________________________________ (r)en ordezkaria izatearekin, baldin eta bere atentzio sanitarioaz zer nahi duen adierazterik ez badauka. Ulertzen ditut ordezkatzen dudan pertsonak dokumentu honetan zehaztu dituen jarraibideak, eta ados nago horiekin. Eta, nolanahi ere, nire ordezkapenak zentzua du bakarrik neuk ordezkatzen dudan pertsonak jarraibide hauek adierazterik ez badauka eta dokumentu hau aldez aurretik baliogabetu ez badu.

Ordezkariaren izena eta abizenak _______________________________________________________ ,

NAN (edo pasaportea edo AIZ) zk. _________________________________

Data eta lekua ______________________________________________________________________ .

SINADURA *(ordezkaria)*:

# Lekukoaren Adierazpena

Behean sinatzen dugunok, adinez helduak, jarduteko gaitasun osoa izanik, eta *(emailearen izen-abizenak)* ______________________________________________________________________________

egileslearekin ez daukagularik ez ezkontza-harremanik, ez elkartze librerik edo izatezko bikoterik, ez odol zein ezkontza bidezko 2.mailara arteko ahaidetasunik, ez ondarezko harremanik, zera adierazi nahi dugu: aldez aurreko borondateen dokumentu hau sinatzen duen pertsonak guztiz kontziente sinatu du, eta, guk dakigula, ez dago epaileak ezgaituta, eta inondik ere ez diogu antzeman bere erabakia behartuta hartu duenik. Besterik gabe, egileslearen aurrean sinatzen dugu:

**Lehenengo lekukoa**

Izen-abizenak ______________________________________________________________________

NAN (edo pasaportea edo AIZ) zk. ____________________________

SINADURA:

**Bigarren lekukoa**

Izen-abizenak ______________________________________________________________________

NAN (edo pasaportea edo AIZ) zk. ____________________________

SINADURA:

**Hirugarren lekukoa**

Izen-abizenak ______________________________________________________________________

NAN (edo pasaportea edo AIZ) zk. ____________________________

SINADURA:

Data eta lekua ______________________________________________________________________

**SINADURA** *(emailea)*:

# 24. Olerkien irakurketa, analisia eta idazketa eta marrazkia gehitu.

Proposamen honek hiru atal ditu:

1.- Hilarri baten ikonografiaren azterketa

2.- Olerki baten azterketa

3.- Olerki baten sormena

Atalez-atal joango gara jarduera bakoitza zehazten:

## 1.- Hilarri baten ikonografiaren azterketa

Proposamen hau egiteko baliabideen gida honetako 12. jarduera behar dugu abiapuntu moduan: "Oroitzeko harria" jarduera. Bertan azaltzen dira 13 hilarrien argazkiak.

Gela azpitaldetan banatu dezakegu eta jarraian azaltzen den fitxa bana eman talde bakoitzari. Ondoren, talde bakoitzak hilarri bat aukeratu dezake 12. jardueratik eta hilarriak duen ikonografia aztertu fitxa erabiliz.

Fitxa betetzen dutenean informazioa taldea osoarekin partekatu dezakete.

## 2.- Olerki baten azterketa

Beste aukera izan daiteke maletan dagoen "Bizitzaz beterik, heriotzaz aserik" liburuxka erabiliz, olerki bat aukeratu eta fitxaren bitartez azter dezatela.

## 3.- Olerki baten sormena

Azken jarduera bezala olerki bat sor dezatela norbaiten omenez edo heriotzaren gaiaren inguruan eta marrazki bat egin dezatela.

# 1. Hilarri baten ikonografiaren azterketa

Zure hilarria aztertu eta taulan azaltzen diren hitz gako hauen artean topa itzazu zure hilarrian azaltzen direnak.

Hitz gakoak:

Gako-hitzen zerrenda emango dizugu. Zure hilarria begira ezazu eta aipatutako zerrendatik aukera itzazu zure hilarriarekin erlazionatzen dituzunak edo eta hilarrian bertan agertzen direnak. Nahiko bazenu ere, beste hainbat hitz gehi ditzakezu.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ura | Bizitza | Hutsunea | Mugarria |
| Airea | Heriotza | Osotasuna | Kromletx |
| Lurra | Arima | Poztasuna | Trikuarria |
| Sua | Bihotza | Tristura | Idulkia |
| Argia | Jainkoa | Alaitasuna | Hilarria |
| Zerua | Gurtza | Loaldi | Diskoa |
| Ilargia | Requiem | Atseden | Borobila |
| Itsasoa | Sarkofagoa | Itzala | |
| Ibaia | Zerraldo | Isiltasuna | |
| Eguzkia | Hilkutxa | Iragana | |
| Sugarra | | Etorkizuna | |
| Haizea | | Oraina | |
| Izarra | | | |
| Ekialdea | | | |
| Mendebaldea | | | |
| Harria | | | |
| Gurpila | | | |
| Ordularia | | | |
| Arrastoa | | | |
| Oinatz | | | |
| Iluntasuna | | | |

Hitz gakoen jatorri etimologikoaren azterketa

IZENA ____________________ ADINA

LEKUA ____________________ IKASTETXEA

Idatzi hemen aukeratutako hitz bakoitza eta saia zaitez bere esanahia eta jatorri latinoa edo grekoa aurkitzen.

Hitza:

Jatorria:

Hitza:

Jatorria:

Hitza:

Jatorria:

Hitza:

Jatorria:

Hitza:

Jatorria:

# 2. Olerki baten azterketa

Maletan dagoen "Bizitzas eterik, heriotzaz aserik" liburutik testu bat aukeratu eta aztertu.

Olerkien analisia

IZENA ADINA

LEKUA IKASTETXEA

Izenburua:

Egilea:

Gaia:

1.- Zer kontatzen digu olerkiak?

2.- Zein leku aipatzen ditu?

3.- Zeintzuk dira bere oroimenak?

4.- Nola sentitzen da egilea?

5.- Zein hitz agertzen dira olerkian?

# 3. Olerki baten sormena

Orain zure olerkia, bertsoa edo ipuina sortu eta marrazki batekin osatu.

Olerkien sorkuntza eta marrazketa

IZENA ADINA

LEKUA IKASTETXEA

Ipui, olerki edo eta istorio bat idatzi eta berarekin erlazionatuta dagoen marrazki baten bitartez osa ezazu

Izenburua:

Egilea:

Gaia:

MARRAZKIA

# 25. Hileta-murala: euskal hileta-objektuetatik abiatuta murala sortu (12, 13, 14, 20, 21, eranskinak).

Ariketa honen bitartez ikasleek norbaiti eskainitako murala garatu ahal izango dute. Lan kooperatiboa ardatza izanik, ikasleek norbaiti agur esateko aukera izango dute. Horretarako, muralak, euskal gizartean hileta-erritu eta doluarekin erlazio zuzena izan duten objektuak aukeratuz, nahi duten sormen lana garatu ahal izango dute.

Hortaz, muralek, bere horretan, argizaiola edo hilarri baten itxura har dezakete edo eta bestelakoa eta bere barruan, objektu hauek duten ingerada kontuan hartuta, esaldiak, marrazkiak, olerkiak eta bestelako elementuak txerta ditzakete.

Horretarako baliabide ezberdinak dituzte aurreko eranskinetan zehar.

# 26. Heriotza da gai...

Jarduera honen helburua eskolara bueltatzean heriotzaren gaiaren inguruan naturaltasunez aritzea eta barne-hausnarketa egitea da.

Taldea azpitaldeetan bana dezakegu eta bakoitzari esaldi bat eman.

Guztion artean hausnartu eta adostu dezakete esaldia nola osatu dezaketen. Horren ondoren, gainontzeko azpitaldeekin esaldia nola osatu duten partekatu dezakete.

Esaldiak hauek dira:

**Heriotza da gai...**

**Gizakiok maite dugun pertsona baten heriotzaren eta sufrimenduaren aurrean sentitzen gara...**

**Gai hauetaz norbaitekin hitz egin nahi dudanean...**

**Heriotza baino gauza okerragoak badira. Adibidez:...**

**Aukeratzerik banu, nahiago nuke hiltzea...**

**Maite dudan norbait kontsolatu nahi dudanean hauxe egiten dut...**

**Egoera mingarrietan murgilduta nagoenean, ni...**

**Besteen sufrimenduaren aurrean, ni...**

**Bizitzak eragindako mugen aurrean ni...**

Museoko bisitaren ondoren eskolan planteatzen diren azken bi ariketa hauen emaitzek ("Hileta-murala" eta "Heriotza da gai …") bere ondorioa izan lezakete eskolan. Asmoa litzateke ikasgelako emaitzak erakustea eta gainerako ikasleak horiek ikustera gonbidatzea, aldez aurretik ikastetxea osatzen duten irakasleei kontsulta egin ondoren. Irakasle horiek aukera izango lukete eta familiak baita ere, nahi izanez gero, emaitzak ikasgelan ikustera gonbidatzeko, egoki baderitzote.